



LHko ikasleentzat online bidezko  
mintzapraktika programa



ebete

# 01

# Mintza ON Zer da?

MINTZA ON Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleei zuzendutako egitasmoa da.

Ebete Aholkularitza Zerbitzuak pandemia egoeran sortu zuen egitasmoari jarraipena emateko asmoarekin datorkigu orain Mintza ON egitasmoa. Helburua ikasleei euskaraz hitz egiteko aukera gehiago ematea da. Beraz, hizkuntza arrakala txikitzen laguntzeko egitasmotik abiatu zenak jarraipena izan dau 2022-2023 ikasturtean. 3 herritan antolatu da (Gasteiz, Elgoibar eta Eibar) eta berriz ere, arrakasta handia izan du.

## Zergatik behar du jarraipena?

Pandemia garaia baino lehen ere ikasleen arteko hizkuntza arrakalak agerian zeuden. Ageriago gelditu dira pandemia garaian eta pandemia ostean, lehenagoko egoerara ez garaela bueltatu entzun dezakegu harremanetan gauden ikastetxe askotan. Pandemia garaian ikasleek euskaraz mintzatzeko izan duten aukera urriak atzera pausu nabarmenak ekarri dizkie askori; hizkuntza ohituren finkatzean, gaitasun komunikatiboan, ...

Ikasle batzuk euskara erabiltzeko edo eta entzuteko duten aukera eta eremu bakarrenetakoa eskola da. Ikasle bakoitzak bere mailari edo adinari lotutako hizkuntza konpetentziak lortzeko behar dituen baldintzak ez dira egokienak eta haien garapenean lagungarriak diren eskolaz kanpoko ekintzak behar dira hizkuntzak bereganatzeko bidean.

## Zergatik online?

Ebeten aurrez-aurreko harremanak eta espazio zabalagoek duten onura ez dugu zalantzan jartzen. Bide honetan hainbat proposamen eta ekimen garatu ditugu urteetan. Hala ere, pantailen atzean egiten den egitasmo honetan alde positiboak aurkitu ditugu 2020tik hona egindako bidean:

- Ikasleek aurretik badakite saioetara euskara erabiltzera doazela. Ez da zeharka lantzen den gaia.
- Kanpoko aisialdi guneetan hizkuntza ohiturak nahiko finkatuta egoten dira. "Ez nago eskolan, beraz...". Pantaila aurreko bilkura hauek ez dira horren ohikoak ikasleentzat eta beraz, hizkuntza ohiturarik ez dago finkatuta, gune eta espazio "berri" batean aritzea modukoa litzake. Honek bide ematen du lagun artean edo ikasleen artean hizkuntza ohitura berriak finkatzen hasteko edo gutxienez, beste modu batean jardutea posible dela ikusarazteko.
- Gailu digitalen erabilera oso zabaldua dago haien artean, baina gehiengoa, edo dena kasu askotan erdaretan izaten da. Egitasmo honek gailu bidezko komunikazioan euskara ere aukera bat dela ikusarazteko bidea zabaltzen duelakoan gaude.

# 02

## 45 minutuz astean behin

### Nori zuzendua

Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. (LH3tik LH6ra bitarteko haurrei).

### Mintza ON taldeen helburu eta ezaugarriak

Saioak dinamikoak eta ludikoak izango dira. Jolasen bidez eta euskara erabiliz ikasleen ahozko konpetentzia linguistikoetan trebatzeko bideak landuko dira.

Mintza ON egitasmoko parte hartzaileak talde txikitan arituko dira. 6 ikaslez osatutako taldeetan eta dinamizatzaile baten laguntzaz.

### Nork antolatuko du?

Ebete Aholkularitza Zerbitzua izango da egitasmoaren antolatzaile nagusia eta egitasmoa martxan jarri nahi duen erakunde edo eragileekin elkarlanean arituko da.

### Taldekatzeak

Izena ematen duten ikasleen artean osatuko dira taldeak. Taldekatzeak parte hartzaileen ordutegien arabera bideratuko dira. Beraz, herri batean ikastetxe desbedinetako ikasleak nahastuta egon daitezke.

### Saioen ordutegiak

Parte hartzaileek izena ematen dutenean asteko egun eta ordutegi desberdinak izango ditu aukeratzeko. Ordutegiak zehazteko orduan ikasleen errealitatera gerturatu eta etxean egon ohi diren orduak aukeratu dira.

Behin-behineko ordutegiak:

- Egurdietan: 13:00ak inguru eguneko lehen txanda.
- Iluntzetan: 18:45 bigarren txanda / 19:45 hirugarren txanda.



# 03

## kudeaketa eta beste batzuk

### Iraupenari lotutako aukera desberdinak

Gaitasun komunikatiboetan eragina izateko epealdi "luze" edo oso trinkoak izatea egokia izan daiteke. Ikasle bakoitzak kurtsoan 24 saiotan parte hartzea eta ikasturte batean baino gehiagotan aritzea izan daiteke egokiena. Hala ere, hizkuntza ohitura aldaketetan "klik" txikiak egiteak ere badu bere eragina, bizipen positiboak euskaraz jasotze horrek "bizipenen zakua" betetzen lagundu dezake ikaslearengan, nahiz eta epe motzean erabilerari lotutako jarreretan berehalako aldaketarik ez ikusi.

Aukera desberdinetara egokitu daiteke baina hau da hobesten dena:

- Urte guztiko iraupena izango duen programa. 2023-2024 ikasturtean 24 saioko proposamena egitea aurreikusten da.

### Parte hartzaileen izen ematea

Izen ematearen kudeaketa Ebetek hartuko du bere gain. Erakunde parte hartzaileekin adostuko dira komunikazio kanal egokiak zeintzuk izan daitezkeen (ikastetxeetako mailingak, udaleko web atariak, guraso batzordeen komunikazio bideak, ...). Hala ere, lehentasuna eman nahi zaio ikastetxeetatik bideratu daitezkeen informazioari. Hori izan baitaiteke bide motz, gertuko eta eraginkorra.

### Parte hartzaileen betebeharrak

Parte hartzaileen betebeharra izango da eta familiei horrela helaraziko zaie:

- Saiotetan euskaraz aritzea.
- Parte hartzaile denak errespetatu eta saioaren dinamikari laguntzea.

### Parte hartzaileen ordainketa

Kudeaketaren atal hau Ebetek hartuko du bere gain. Parte hartzaileek izen ematearekin batera egingo dute dagokien ordainketa. Ordainketa ziurtagiria Ebeteri bideratuko diote. Parte hartzailearen batek egitasmoan izen eman eta hasi ostean uzten badu ondo justifikatutako kasuetan bakarrik bueltatuko da.

### Finantziazioa

Udal, guraso elkarte edo edo eta ikastetxeetatik finantziatutako egitasmoa izateko aukerak zabalduko dira.



**HARREMANETARAKO:**  
**[mintzaon@ebete.eus](mailto:mintzaon@ebete.eus)**



ebete